



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2016ko OTSAILA - 171. zenbakia

Martxoaren 5ean egingo dugu Batzar Nagusia

Bergaran da aurtengo hitzordua eta bazkide guztiak gonbidatuta zaudete.

Herrialdeetako batzarrak hasi ziren urtarrilean eta otsailean segida izango dute. Behin horiek eginda, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen batzarra egingo dugu. Aurtengo hitzordua martxoaren 5ean izango da Bergaran.

Hitzordua Bergarako Irizar jauregian izango da, 11:00etatik aurrera. Ohi bezala, Iñaki Murua Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen lehendakariaren hitzek emango diote hasiera batzarrari. Horren ostean, 2015. urteari errepaso egingo diogu; urteko memoria eta balantze ekonomikoak aurkeztuko ditugu.

Behin hori eginda, aurrera begira jarriko gara eta urte honetarako esku artean ditugun egitasmo nagusiak ezagutuko ditugu. Herrialde bakoitzak bere egoeraren berri emango du lehendakariaren ahotik eta herrialdeen egoera ezagutu ostean, 2016rako egitasmoa sailez

sail errepasatuko dugu: Koordinazioa, Transmisioa, Sustapena, Lanku, Ikerkuntza, Xenpelar Dokumentazio Zentroa, Genero Taldea eta Komunikazioa. Batzarrarekin amaitzeko, 2016ko aurrekontua aurkeztu eta bozkatuko da.

Batzarraren ostean bazkaria egingo dugu; 14:00etan izango da. Bazkarira joan nahi duten bazkideek aurretik konfirmatu behar dute, 943694129 telefono zenbakian edo komunikazioa@bertsozale.eus helbide elektronikoa. Otsailaren 26a da bazkarian izena emateko azken eguna.

Herrialdeetako batzarrak

Euskal Herrikoa aurtengo azken batzarra izango da. Dagoeneko Arabako eta Nafarroako elkarteek eginak dituzte haienak, eta otsailean gainerako herrialdeen txanda ailegatuko da.

Bertsularien Lagunak elkarteak otsailaren 27an du hitzordua, Senperen, goizeko 10etan hasita. Bizkaian eta Gipuzkoan ere egun bera aukeratu dute. Bizkaian Durangoko Plateruena Kafe Antzokian izango da, goizeko 11etatik aurrera. Batzarra amaituta, 2016ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren ingurukoak aurreratuko zaizkiei hurbildutako bazkideei eta amaitzeko mokadu bat eskainiko da. Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak Amasa-Villabonako Subijana etxean egingo du urteroko batzarra goizeko 11etan hasita. Ondoren, bazkaria egingo da eta horretara joan ahal izateko bertako bazkideek hilaren 17a baino lehen eman behar duzue izena, telefonoz zein posta elektronikoz, Gipuzkoako Elkartearen.



Elkartearen erabakigune gorena da Batzar Nagusia. //XDZ



INAXI ETXABE OLIDEN
Donostia, 2015-XII-19

Doinua: Santa Barbara zure bizitza

Zein polita den irabazleai
txapel eder bat jartzea
ta berarentzat zer esanik ez
hori horrela hartzea
zure lanean saiatu zera
ta lortu zugaratzea
nik opa dizut horrei begira
eta horrekin gonatzeta. (bis)

F.C.BAIMENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredakzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinu-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xenpelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazioa@bertsozale.eus

“Euskal kulturari beste generoetatik begiratzeko **espazio berri bat irabazi dugu**”

Ahots Baten sormen egonaldian antzerkigintza, ipuingintza, kantagintza eta bertsogintza landu dituzte hainbat gaztek. Mintzolak antolatutako ekimen honen inguruko xehetasunak hurbildu dizkigu egitasmoaren koordinatzaile den Esti Alberdik.

Abenduaren 26tik 30era ahozkotasanaren diziplina ezberdinak landu zituzten Ahots Baten sormen egonaldian bildutako 15 eta 20 urte bitarteko gazteek. Antzerkigintza, ipuingintza, kantagintza eta bertsogintza lantzen dituzte urtean zehar gazte horiek, eta urtea biribiltzeko, ahozkotasanarekiko interesa duten beste gazteekin harremanak egin eta beste adierazpideak ezagutzeko parada izan zuten, Zestoako Sastarrain baserri eskolan elkartuta.

Mintzolak antolatutako ekimena da Ahots Baten egonaldia, Ikastolen Elkartea, Euskal Herriko Antzerkizale Elkartea, Euskal Kantuzaleen Elkartea eta Bertsozale Elkartarekin elkarlanean.



Hainbat alderdi garatu dituzte Ahots Baten sormen egonaldian.//XDZ

Esti Alberdi Ahots Baten sormen egonaldiko koordinatzailea da, eta hark eman dizkigu ekimen honen inguruko hainbat xehetasun.

Nolako izan zen Ahots Baten egonaldiaren esperientzia?

Bizi izan duguna hitzez adierazten asmatzea ez da erraza. Gazte hauen parte hartzea, inizatiba, gogoia, ondo pasatzeko gaitasuna, giroa, ez da edonon erraz aurkitzen... Denok markatu gaitu egonaldi honek, parte-hartzaile zein hezitzaile.

Adierazpide artistikoen arteko trukaketak zer ekarri die parte hartu duten gazteei?

Zuzenean jaso dute artista bakoitzaren bizipenen berri. Ipuingintzatik Beatriz Egizabal izan zen; antzerkigintzatik, Eñaut Gantxegi; kantagintzatik, Mikel Markez; eta, azkenik, bertsolaritzatik, Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi eta Xabier Lizaso. Modu horretan, parte-hartzaileek aukera izan zuten beraiengandik hurbilena sentitzen zuten generoa bizitzeko, gozatzeko eta besteetatik osatzen joateko.

Zer nolako garrantzia dute elkarlanean oinarritutako gisa honetako egitasmoek?

Hiru arlo azpimarratu nahiko nituzke. Batetik, gazteen ikuspegitik, generoen arteko trukaketa hau euren sortzaile izaera osatzeko oso aberasgarria da. Bestetik, artista, sortzaileen ikuspegitik, beraien arteko esperientzia trukaketa eta harremanak sendotzeko; kezka, egonezin eta betebeharrak konpartitzeko aukera ederra da. Eta, azkenik, Mintzolareen ikuspegitik, bertsoaz gain, euskal kulturari beste generoetatik begiratzeko espazio berri bat irabazi dugu.

Bide beretik segitzeko asmorik?

Bai, asmoa bakarrik ez, beharra ere bai. Bide berri honetan hasi besterik ez gara egin eta egin dugunaren ondoan egiteko daukaguna ikaragarria da.

Bertso-udalekuetarako begirale deialdia abiatzera doa

2016ko udan bertso-udalekuetara begirale, sukaldari zein zuzendari moduan etorri nahi dutenentzat, izena emateko epea otsailaren 18tik martxoaren 18ra arte zabalduko dugu. Izena emateko www.bertsozale.eus atarian sartu eta bertan bete behar da izen emate fitxa. Gogoan izan begirale gisa etortzeko beharrezkoa dela bertso-eskolako kide izatea eta begirale titulua edukitzea.

laz bezala, bertso-udalekuetan bost txanda antolatuko ditugu udaran: Orio, Muxika, Zuhatza, Irañeta eta Bidarrain. Haurrentzako eta gaztetxoentzako izen-ematea apirilaren 4an zabalduko da.



Udara, bertso-udalekuekin disfrutatzeko garaia.//XDZ

Hainbat aldaketa izango ditu aurtengo BBK sariketak

Bizkaiko Bertsolari Gazteen BBK Sariketa hastear da. Otsailaren 16an egingo da aurkezpena, eta hurrengo asteetan izango dira saioak. Lau kanporaketa jokatu dira: bi finalurreko eta finala.

Aurten ahalegin berezia egin da BBK Sariketa Bertsozale Elkartean balioetara ekartzeko, eta aldaketa nabarmen birekin dator.

Alde batetik, talde bat gehiago egongo da aurten BBK Sariketan eta, hala, zortzi taldek hartuko dute parte: Arratia, Busturialdea, Durangaldea, Enkarterri/Ezkerraldea, Hego Uribe, Lea-Artibai, Uribe Butroe eta Uribe Kosta.

Beste alde batetik, sariak bateratu egin dira. Orain arte bertsolari bakoitzak saria dirutan jasotzen zuen. Aurten, ostera, parte-hartzaileentzako irteera bat antolatuko da. Guztientzako izango da saria, eta elkarrekin ondo pasatzeko aukera edukiko dute gazteek.

BBK Sariketaren finala martxoaren 11n jokatu da, 19:00etan, Bilboko Kafe Antzokian.



Bilboko Kafe Antzokian jokatu da BBK sariketaren finala.//XDZ

Hilaren 12an hasiko da Gipuzkoako Eskolartekoaren edizio berria

Bat-bateko txapelketa, idatzizko sariketa eta ondorengo bertso saio didaktikoak, aurten ere hiru ekimen horiek bilduko ditu Gipuzkoako Eskolartekoak. Otsailaren 12an hasiko dira idatzizko zein bat-bateko sariketak.

15 eta 18 urte bitarteko 30 bertsolari inguruk hartuko dute parte Gipuzkoako Eskolartekoaren bat-bateko txapelketan. Kanporaketa saioak herriko elkarte batean jokatu dituzte, bertso-afari giroan. Aurtengo eskolartekoak bost kanporaketa izango ditu: Legazpin (otsailak 12), Lasarte-Orian (otsailak 19), Zarautzen (otsailak 26), Aretxabaletan (martxoak 11) eta Azkoitian (martxoak 17). Kanporaketa guztiak 19:00etan hasiko dira eta bertso-afariak herriko elkarte batean izango dira, bertako bertso-eskolak lagunduta; afaritarako sarrerak salgai daude www.bertsosarrerak.eus atarian. Finala apirilaren 17an jokatu da Eibarko Coliseoan, Gipuzkoako Bertso Eskolen Egunaren egitarauaren barruan.

Bat-bateko txapelketaz gain, idatzizko sariketan ere parte hartzeko aukera izango dute Gipuzkoa osoko batxilergo bitarteko gaztetxoek. Egoitza batean elkartu eta emandako gaiari ordubeteko tartean bertsoak jartzea izango da egin beharreko lana. Adinaren arabera, lan diferenteak proposatuko zaizkie.

Saio didaktikoena da Eskolartekoak biltzen duen azken ekimena. Idatzizko lana bukatu eta, jarraian, ikastetxeetako ikasleei bat-bateko saio bat ikusteko aukera eskaintzen zaie, dauden lekuan bertan: bertso-eskoletako gazte taldeek prestatutako saio didaktikoa.

Legazpin, Hernanin, Zarautzen, Ataunen, Elgoibarren eta

Azkoitian egingo dituzte idatzizko sariketa eta ondorengo bertso-saioak, otsailaren 12tik martxoaren 17ra.

Eskolartekoaren bat-bateko txapelketa Ikastolen Elkartek eta Bertsozale Elkartek elkarlanean antolatzen dute, bertso-eskolen laguntzarekin. Idatzizko sariketa eta saio didaktikoak, berriz, Ikastolen Elkartek antolatzen ditu.



Duela bi urte hasi zen Eskolartekoa molde berrian.//XDZ



Puntu jarrita

MADDI SARASUA LASKARAI

Nola kudeatzen du norberak bertsolaritzarekin duen harremana? Noiz da eder eta noiz mingarri bertsogintzan buru-belarri sartuta egotea? Norberetik erantzuteko galderak izanik, ene bizipenetatik doakizu Aitor, erantzuteko saiakera.

Hastapen batean, uste dut bertsogintzarekin ukan dudana harremana ez zela nihaurk kontzienteki kudeatua izan. Ikastolan bertso eskola maite eta handik bertso plan, saio, eta txapelketetara eraman nau bertso korronteak. Bertso plazetan igeri zoazen halako batean ohartzen zara haatik, norbaitek proposamen bat egiten dizun aldiro bi erantzun posible dituzula.

Bertsogintzan buru-belarri sarturik egon naizen garaiak ederretik zuten guziarekin gogoratzen ditut. Uste dut ahoan gustu gazia utzi izan didaten uneek edo senditutako sentazio deserosoek, izan oholtsa gain edo azpi, jendearen ahotan edo nihauren pentsamenduetan, ene burua lekuz-kanpo edo ez ongi senditzetik etorri izan zaizkidala.

Dena den, ene kasuan, bizitakoak ederretik mingarritik baino aise gehiago ukanik, bertsogintzarekiko dudana harremana urrundu izana ez diet bertso munduan bizitako esperientziei lotzen; bertso mundutik kanpo bizi nahi nituen beste mila esperientziei baizik.

Ederra da, bertsolaritzarekin dugun harremana guk hautatzen dugula senditzea. Hautu inkontzientea ere izan daiteke. Gure bizia eraikitzerakoan, zeri ze leku eman nahi diogun hautatzen dugu. Baina ez da zailenetarik, zer nahi dugun hautatzea.

Distantiaren ederretik bertsoa idekitzeko aukera bezala ikusi eta hala bizi nahi nuke. Bertsotan buru-belarri egotea, burua eta belarriak beste mila gauzetan ukanez. Beste mila gauzetatik bertsotan eta bertsotik beste mila gauzetara.

Bertsoak ene bizian ze leku ukanen duen hautatzeaz gain, ene inguruan, nahi dudana bertso mundua sortzeko aukera dudala senditzen dut. Bertsoa nahi dudana moduan bizitzeko, sortu eta eraikitzeko aukerak ikusten ditut. Eli Pagola, bertsoa bizi nahi duzun moduz galdetu nahiko nizuke nik; noiz senditzen zaren deseroso, ze hutsune ikusten dizkiozun gaurko bertsogintzari eta ze lurralde konkistatzeko. Ze forma eman nahiko zeniekeen bertso plazei eta ze esperientzien atari bizi nahiko zenukeen bertsoa.

Koplak

Bizkaiko neguko barnetegia, martxoaren 4tik 6ra

13 urtetik 18 urtera bitarteko bertsolari gazteek Gorozikan daukate zita martxoaren 4tik 6ra, Bizkaiko neguko barnetegian. Barnetegira bertso-eskoletan eta bat-bateko taldeetan dabilzan bertsolari gazteak joaten dira, eta asteburu ederra pasatzeko aukera edukitzen dute.

Izena emateko hainbat modu daude: 94 6812711 telefonoan, bizkaia.transmisioa@bertsozale.eus helbide elektronikoan edo bertso-eskolako arduradunari esanda. Bizkaiko Bertsozale Elkarteak eta Bizkaiko Ikastolen elkarteak elkarlanean antolatzen dute barnetegia.

Poto-Finixa



Bertsolaritzaren matematikak

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Taldekako ekimenak Araban eta Nafarroan

Aurrera segitzen dute Arabako Kuadrilla artekoa eta Nafarroako Bardeak taldekako ekimenek. Martxoan amaituko dira biak ala biak, baina bitartean otsailean ere saio mordoak izango dituzte batean zein bestean. Horien gaineko informazioa www.bertsozale.eus atariaren barruan dauden atal berezietan aurkituko duzue.

Kontratazioak eta informazio gehiago:

Lanku
www.lanku.com
943 26 07 55

Tablo Seta eta Fernando Jaurriategi

ISTORIO TRUKEA(n)

KAPUIA NABATZINTZILIK

KONTU ETA KANTU

FERNANDO JARRIATEGI

PUBLIZITATEA